

5^a EDICIÓN | PRIMARIA

CONCURSO ESCOLAR

HAZLO VERDE

MISIÓN #SALVEMOSLOS BOSQUES

CAMBIAR TU MUNDO ESTÁ EN TUS MANOS

UNIDAD DIDÁCTICA 1

MARKO PEDAGOGIKOA



LEROYMERLIN
Da vida a tus ideas

DEMOS VIDA A UN
HÁBITAT MEJOR

AURKIBIDEA

- 1 AURKEZPENA**
- 2 JASANGARRITASUNA HELBURU GISA**
- 3 IKASLEAREN AHALDUNTZEA ETA KONPETENTZIA BIDEZKO IKASKUNTZA**
- 4 LOTURA KURRIKULARRA**

4.1 OINARRIZKO KONPETENTZIAK

4.2 IKASGAIK ETA EDUKI BLOKEAK



Hazlo Verden eskola programak abian daramatzan edizioetatko hirutan egon gara GJHetan zentratutik. Ikasleak haien ingururako ura, energia edo birziklapenari buruzko hobekuntza plana garatzera gonbidatzeaz gain, hirugarren edizio honetan hezkuntza komunitatean GJSen ezagutza hedatzeko abenturari ekin genion. Hura **#SomosLaRaíz Misioa** izan zen.

Ondorengo misioan, **#PlasticFree Misioa**, plastikoak gure ozeanoetan duen inpaktuaren gaineko kontzientzia hartu genuen eta **jasangarritasunaren eta kontsumo arduratsuaren kontzeptuen** inguruan sakondu genuen.

5. edizio honetan gure ahaleginak **15. GJHaren** inguruko sentsibilizazio kanpaina bat sortzera bideratuko ditugu, **gure basoak eta beren dibertsitate aberatsa ezagutzera emateko**, haien baliabideen **jasangarritasuna** gordez.

Beste behin gure misio berri honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu

#SalvemosLosBosques Misioa

Ume eta gazteek **ingurumen- eta gizarte-identitate jasangarria** gara dezaten. Eta horretarako... misio honetan **15. GSHaren** inguruko sentsibilizazio kanpaina bat garatzea eskatzen dizuegu!




PROGRAMAREN GAKOAK

Misio honetan sentsibilizazio kartel edo bideo bat sortzean datzan proiektu bidezko ikaskuntza eta komunitatearentzako zerbitzuak, taldean lan egiteko eta erantzukizunak gain hartzeko ohiturak garatzen laguntzen du, hala nola norberarenganako konfiantzazko jarrerak, zentzu kritikoa eta gaurko gizartean inplikazio eta parte-hartze kontzientzia hartzea.



Hazlo Verden ziur gaude, **geure mundua alda dezakegula geure esku baitago eta gure irakasle eta ikasleen laguntzarekin** lortuko baitugu!



Horregarik garrantzitsua da zuen parte-hartzea misioan! Pertsona bakoitzarengan elkarrekin hobe bizitzeko inguruneak sortzeko motibazioa piztu nahi dugulako.

Eskuzabaltasunez, gertutasunez, elkarlanarekin eta anbizio transformatzailearekin gure ingurunea eraldatu eta gure komunitatea **jasangarritasuna aukera bat baino, aldaketa hori lortzeko bidea dela** konbentzitzea lortuko dugu.

Gurea bezalako ekimenei esker, ikasle eta komunitateek **munduaz duten pertzepzioa aldatzea** lortzen baitugu, bere ingurunea eraldatzeko **ikuspuntu eta jarrera berriekin** haien mundua aldatuz.

Jasangarritasuna eta kontsumo arduratsua inpaktu sozial positibo baterako bi ardatz nagusi dira. Edizio honetan **basoen** gaia landuko dugu, batetik **oxigenoa eta aberastasun biologikoa** errazten dizkigutenak ekosistemak mantenduz, baina bestalde, **bizitza eta ekonomiarako beharrezko diren baliabide**etaz hornitzen gaituztenak, eta horretarako, **berberen kudeaketak jasangarria izan beharra du.**

Garapen Jasangarria Leroy Merlinek pertsonekin eta ingurumenarekin duen konpromezuaren espreisioa da. Konpromezu horrek hiru ardatzetan zentratzen den **Ingurumen Politika** bat dakar berarekin: **kontsumo arduratsua, ekonomia zirkularra eta aldaketa klimatikoa**, eskuhartze argiekin eta helburu zehatzekin.

Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) batera, ikasleek hezkuntza komunitatearen gain haien hobekuntzak proiektatzen dituzten bezalaxe egiten dituzte ekarpenak.

Hori dela eta, 5. edizio honetan, basoek eta **helburu ekonomikoekin erabiltzen den egur guztiaren kudeaketa jasangarriak** duten garrantzia aditzera emango dugu.

IKASLEAREN AHALDUNTZEA ETA KONPETENTZIA BIDEZKO IKASKUNTZA

Ikaskuntza iraunkorrerako oinarrizko konpetentziak, **konpetentzia bidezko ikaskuntza indartzean** dautza, irakaskuntzaren jardutean eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan berrikuntza bat eskaintzeko curriculumeko elementuetan integraturik daudenak.

Konpetentzia bidezko ikaskuntza honek, beste batzuen artean **herritarren parte-hartzea** lantzea du helburu, Mundu fisikoa ezagutu eta harekin elkar eragiteko, ikasten ikasteko eta Gizarte eta Herritartasunerako Oinarrizko Konpetentzian oinarritutako ikaskutza integralaren sustapenari esker.

Praktikan konpetentzia hauek trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak eta **jardute sozialetan aktiboki parte hartuz** eskuratzen diren beste osagai sozial eta jarrerazkoak konbinatzen dituzte.


Edizio honetako unitate didaktikoetan zuen ikasleek **15. GJHa** betetzeak duen garrantziaren inguruan, **gure inguruko basoen** egoeraren inguruan eta **kontsumitzaile arduratsu** gisa bete behar dugun rolaaren inguruan iker dezaten webgune ugaritarako estekak eskaintzen dizkizuegu.

Aterako dituzuen ondorioek, hala nola iradokitutako jarduerak zuen sentsibilizazio kanpaina definitzeko balioko dizute.





4.1 OINARRIZKO KONPETENTZIAK



4.2 IKASGAIAK ETA EDUKI BLOKEAK

LEHEN HEZKUNTZA etapa

IKASGAIA	EDUKI BLOKEA	EDUKIA, IRIZPIDEAK ETA IKASKUNTZA ESTANDARRAK			GJHekiko lotura
NATURAREN ZIENTZIAK	3. BIZIDUNAK	Populazio, komunitate eta ekosistemak. Ekosistema baten ezaugarri eta osagaiak.	Ekosistema batetako ezaugarri eta osagai nagusiak behatu eta identifikatu.		15. LEHORREKO BIZITZA
		Ekosistemak, zelaia,putzua, basoa, kostaldea eta hiria eta bizidunak.	Ekosistema batzuk antzeman eta azaldu:zelaia, putzua, basoa, kostaldea eta hiria eta bertan bizi diren bizidunak.		
		Biosfera, bizidunen habitat ezberdinak.	Bizidunen habitat ezberdinak behatu eta identifikatu.		
			Bizidunen desagertapenaren arrazoi batzuk identifikatu eta azaldu.		
BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOAK	2. BIZIKIDETZA ETA BALIO SOZIALAK	Ingurugiroaren kontser-bazioari mesede egin errespetu faltan aurrean jarrera kritikoa mantenduz	Gizakiak ingurugiroan egiten duen esku hartzearen zergati eta ondorioak aztertu, azaldu eta aurkeztu.	Gizakiak ingurugiroan egiten duen esku hartzea zentzu kritiko-arekin ikertu eta emaitzak igorri.	15. LEHORREKO BIZITZA
				Oreka ekologikoaren babeserako eta berreskurapenerako eta ingurugiroaren kontserbaziorako jarrerak argudiatu.	
		Naturako baliabideen erabilera arduratsua egin gertaerak ulertuz eta interpretatuz, zergatiak aztertuz eta aurreikuspenak eginez.	Inguratzen duen naturarekiko interesa agertzen du eta berberaren parte dela sentitzen du.	Ondasun naturalen kontserbazioaren zergatiak arrazonatzen ditu.	
			Ondasun naturalen erabilera egokian parte hartzeko ekimenak proposatzen ditu zergatiak arrazonatuz.		
GIZARTE ZIENTZIAK	2. BIZI GAREN MUNDUA	Garapen jasangarria.	Gizakiak ingurugiro naturalean duen eragina azaldu, baliabide naturalen erabilera jasangarria identifikatuz, gizadiaren garapen jasangarrirako neurri sorta bat porposatuz, bere efektu positiboak zehaztuz.	Baliabide naturalen erabilera jasangarria azaldu, gure planetaren ingurugiroaren baldintzak hobetzera bideratutako neurri eta ekintza jakinak norberegantuz.	9. INDUSTRIA BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
		Kutsaduraren arazoak. Aldaketa klimatikoa: Eragileak eta ondorioak.	Gure ekintzek klimaren gain eta aldaketa klimatikoaren gain dituzten ondorioak azaldu.	Aldaketa klimatikoaren zergatiak eta ondorioak, eta hura geldiarazteko ekintza arduratsuak azaldu.	13. KLIMA BABESTEKO EKINTZA

4.2 IKASGAIAK ETA EDUKI BLOKEAK

LEHEN HEZKUNTZA etapa

IKASGAIA	EDUKI BLOKEA	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZA ESTANDARRAK
HEZKUNTZA ARTISTIKOA	1. IKUS-ENTZUN EZKO HEZKUNTZA	Irudi finkoen irakurketa, analisi eta interpretazioranzko gerturapena egin berberen esanahi eta funtzio soziala modu kritikoan ulertuz, eskuratutako ezagutzetatik abiatuz irudi berriak sortzeko gai izanik.	Tamaina, oreka, proportzioa eta kolorearen kontzeptuak aintzat hartuz, informazio anitzeko kartelak sortu, testuak gehituz, eta dagokien funtziora hobekien egokitzen zaion tipografia erabiliz.
		Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erantzukizunez erabili irudi finkoak bilatu, sortu eta hedatzeko.	Testudun ilustrazio lanetarako balioko dioten irudi digitalak sortu eta berberei ukituak emateko (kopiatu, moztu, itsatsi, tamaina, kolorea, argia, kontrastea aldatu...) programa informatiko errazak maneiatu.
	2. ADIERAZPEN ARTISTIKOA	Modu pertsonalean ideia, ekintza eta egoerak adierazi ikusizko hizkuntza taxutzen duten elementuez baliatuz.	Kolorearen ezaugarriak desberdindu, argitasunari, tonuari eta saturazioari dagokionez, produkzioetan helburu jakin batekin aplikatuz.
			Kolore beroen eta hotzen sinbologia ezagutu eta ezagutza horiek egindako konposizio plastikoaren bitartez sentsazio ezberdinak transmititzeko aplikatu.
		Produkzio plastikoak egin sormen prozesuaren oinarritzko pautak jarraituz, experimentatuz, material eta teknika piktorko ezberdinen adierazgarritasuna antzemanaz eta desberdinduz eta planteatutako lana egiteko egokienak aukeratuz.	Taldean proiektuak burutu gainerakoen ideiak errespetatuz eta egokitutako eginkizunetan elkarlanean arituz.
			Marrazketako teknika zein teknika piktorko egokienak erabili lanen sorketarako, material eta instrumentuak modurik egokienean erabiliz, materiala eta espazioa zaindraz.
		Komunikabideetako eta Interneteko baliabide bibliografikoak erabili sormen prozesuak planifikatzen eta antolatzen lagunduko dien informazioa eskuratzeko, hala nola beste ikasleekin informazioa ezagutu eta elkartrukatzeko.	Bere sorkuntza prozesu propioa antolatzen eta planeatzen du ideiatik abiatuz, komunikabideetako edo Interneteko informazio bibliografikoa jasoz, zirriborroetan garatuz eta amaierako lanaren helburuei hobekien egokitzen zaizkionak aukeratuz, elementu estereotipatuak erabili gabe, beste ikasleekin prozesua eta lortutako amaierako produktua partekatzeke gai izanik.

Recordad que tenéis a vuestra disposición,
multitud de dinámicas grupales para trabajar los ODS.
¡No dejéis de consultar el material didáctico
de las ediciones anteriores!

